






EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERAGINA DATUEN AURRERAPENA (EAE, 2019)

Dokumentu honetan, Azterlan eta Analisisen Dibisioak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila) emakumeen aurkako indarkeriari buruz emandako datu nagusien aurrerapena jasotzen da. Datu horietan, EAEko poliziak 2019an ofizialki erregistratu zituen emakumeen kopurua eta emakumeen aurkako indarkeria-kasuak adierazten dira.

Datu horien arabera, urte horretan **4.419 emakume izan ziren indarkeriaren biktima**. Guztira, 3.098 emakumek (% 70,1) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak jasan zuten; 899 emakumek (% 20,3) beste gizonen batek eragindako indarkeriaren biktima izan ziren; eta 422k (% 9,6) familiatik kanpoko sexu-indarkeria jasan dute.

Kontuan izan behar da emakume batzuek behin baino gehiagotan jasaten dituztela erasoak urte berean. Zehazki, 2019an **5.518 biktimizazio** edo indarkeria-kasu zenbatu ziren.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak eta biktimizazioak, indarkeria motaren arabera. Absolutuak eta%. EAE, 2019


2019	5.518 indarkeria- kasuak	4.419 emakume
 Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria	 4.086 kasu %74	 3.098 emakume %70,1
 Familia barruko indarkeria	1.008 kasu %18,3	899 emakume %20,3
 Sexu-indarkeria	424 emakume %7,7	422 emakume %9,6

Indarkeriaren **biktima diren emakumeen kopuruak eta biktimizazioenak gora egin dute** 2018ko datuekin alderatuta. Zehazki, biktima diren emakumeen kopurua % 4,12 hazi da: 2018an 4.244 ziren, eta urtebete geroago, 4.419. Biktimizazioei dagokienez, igoera % 3,82koa izan da, 2018ko 5.315etik 2019ko 5.518ra.



Lurraldeka aztertuta, datuek adierazten dute **biktima diren emakumeen % 53,7 (2.372) Bizkaian bizi dela, % 30,4 (1.343) Gipuzkoan eta % 15,9 (704) Araban**. 2018. urtearekin alderatuta, hiru lurralde historikoetan biktima izan diren emakumeen kopuruak gora egin du, baina Arabak izan du hazkunderik handiena (% 7,98), ondoren Gipuzkoak (% 4,76) eta, azkenik, Bizkaiak (% 2,68).

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, Lurralde Historikoaren arabera. Absolutuak eta %. EAE, 2019



Emakumeen adinari erreparatuz gero, **biktimen ia erdiek (% 47,2) 31 eta 50 urte bitartean dituzte, eta % 28,1ek 18 eta 30 urte bitartean**. Gainera, **biktima diren emakume guztien % 10,6 adingabeak dira, eta % 14,1, 50 urtetik gorakoak**.

Aurrekoetan egiaztatu den bezala, datuek baieztatzen dute nolabaiteko lotura dagoela emakumeen adinaren eta jasaten duten indarkeria motaren artean. Hala, bikotekideen edo bikotekide ohien biktima diren emakumeen % 56,8k 31 eta 50 urte bitartean ditu, eta % 88,3k 18 eta 50 urte bitartean. Bestalde, ohikoagoa da familia barruko indarkeria jasaten duten emakumeak 50 urtetik gorakoak izatea (% 34,4) edo adingabeak (% 26,3).

Gainera, zehaztu behar da **emakume gazteenak direla familiatik kanpo eragindako sexu-indarkeriaren biktima nagusiak**: indarkeria-mota horren biktimen % 38,6 adingabeak dira, eta % 73 30 urtetik beherakoak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeak, adinaren arabera. Emaizta orokorrak eta erasotzaile motaren arabera. %. EAE, 2019

	Guztira	Bikote/Bikote ohia	Familia barrukoa	Sexu askatasuna
18 urtetik beherakoa	%10,6	%2,2	%26,3	%38,6
18-30 urte bitartekoa	%28,1	%31,5	%13,5	%34,4
31-50 urte bitartekoa	%47,2	%56,8	%25,9	%21,8
50 urtetik gorakoa	%14,1	%9,4	%34,4	%5,0
Adin ezezaguna	%0,05	%0,03	-	%0,2
Guztira	100	100	100	100

